



2010EKO LATORRIZKO GEHITU SARIA

GEHITUK, Euskal Herriko gay, lesbiana, transexual eta bisexualen Elkarteak, Eusko Jaurlaritzak onura publikokotzat aitortu zuenak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Giza Eskubideen saria jaso duenak, maiatzaren 17an ospatzen den homofobia eta transfobiaren aurkako eguna dela eta, erabaki du **BERE HOMOFOBIAGATIK NABARMENDU DEN PERTSONA EDO ERAKUNDEARENTZAKO LATORRIZKO GEHITU SARIA** honako honi ematea:

TARSICIO BERTONE Vatikanoko Estatu Idazkariari, joan den apirilaren 12an Santiago de Chilen egindako adierazpenengatik. Izan ere, Bertonek pederastia homosexualitatearekin lotu zuen, erabat desberdinak diren bi termino erlazionatuz: alde batetik, homosexualitatea, pertsona baten nortasuna modu afektibo-sexual jakin batean itxuratzen duen gizabanakoaren izaera, eta bestetik, pederastia, heldu batek adingabeei eta urritasunen bat duten pertsoneri sexu-abusuak egitean datzan delitua. Tarsicio Bertone kardinalak ziurtatu zuenez, Elizaren barruan gertatu eta argitara eman diren pedofilia-kasuek ez dute zerikusirik apaizen zelibatuarekin. Aitzitik, homosexualitatearekin lotu zituen horrelako ekintzak.

Duela gutxi egindako adierazpen horiengatik ez ezik, Vatikanok 2008ko abenduan Nazio Batuen aurrean erakutsiko jarreragatik ere eman diogu 2010eko Latorrizko Gehitu saria Vatikanoko ordezkari diplomatikoari. Izan ere, Estatu hori azpijokoan aritu zen, Nazio Batuen Biltzarrak salaketa publikoa egin ez zezan homosexualitatea delitutzat hartzen duten eta homosexualei kartzela- edo heriotza-zigorra ezartzen dieten herrialdeen aurka.

Eliza Katolikoko Hierarkiaren jokabide horiek nahigabea eta sufrimendua baino ez dute eragiten milaka homosexual katolikorengan, beren orientazio sexuala krimen higuigarri batekin erlazionatzen dela ikusita, edo beste modu batera maitatu eta sentitze hutsagatik, kartzela- edo heriotza-zigorra jasotzen jarrai dezaten beren ordezkari erlijiosoek egiten duten ahalegina ikusita.

Gehitutik erabat salatzen eta baztertzen ditugu horrelako adierazpen eta jokabideak. Izan ere, beren helburu bakarra hauxe da: apaizen sexu-abusuek eta horiek etengabe ezkutatzeke ahaleginek eragindako eskandaluen ondorioz, Vatikanoko erakundeek bizi duten egoera larria ahaztaraztea. Gure ustez, gainera, jokabide horiek nahita egiten dira, eta iraganera itzultzea dute xede; gizarte aurreratu askotan gaindituta dagoen iragan batera, zeinean, homosexualitatea gizarte-delitu larriekin lotzearen bidez, kolektibo oso bat estigmatizatzea eta gizartetik baztertzea lortzen baitzen; hainbat mendez lege- eta gizarte-diskriminazioa jasan duen talde bat arbuiatzea.





Zorionez, gure gizartearen gehiengoak ez dator bat Bertonerenak bezalako proposamen atzerakoi eta diskriminatzaileekin. Hala ere, oraindik pertsona asko fidatzen dira beren buruzagi erlijiosoen mezu eta ikuspegiez; beraz, honelako adierazpen eta jokabideek jarrera homofobo eta transfoboen areagotze larria eragin dezakete gure herrikideen artean.

